

EUSKARAREN SINTAXI DIAKRONIKORANTZ: EGITURA KONPLEXUAK

Tesiaren egilea: Dorota Krajewska

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Joseba A. Lakarra eta Javier Ormazabal

Tesiaren laburpena:

Azken urteotan asko aurreratu da euskararen gramatika historikoaren inguruko ikerketan, baina lan gutxiago egin da sintaxiaren bilakabide historikoaz. Nire tesiak hainbat egitura konplexuren historia du ardatz, hain zuzen, euskararen sintaxi diakronikoaren inguruko ezagutza areagotzeko.

Hauek dira aztertu ditudan gai nagusiak: (a) izenaren eta modifikatzaileen arteko hitz-ordena, perpaus erlatiboetan, *-ko* atzizkiarekin eta genitiboarekin, eta (b) mendeko perpausak sortzeko estrategiak, eta bereziki perpaus erlatiboak eta *bait*-aurrizkia.

Lehenengoari helduta, gaur egungo hizkeretan izen-sintagmaren barruko ordena [modifikatzailea + izena] da: *gure aita, etxeko lanak* edo *etorri den neska*. Hala ere, testu zaharrak aztertuta, kontrako ordenaren adibideak ere agertzen zaizkigu. Nire helburua izan da aztertzea egitura horien erabilera XVI-XIX. mendeetako testuetan. Emaiztarik garrantzitsuenetarikoa da izen osteko erlatiboan eta *-ko* sintagmen erabilera pentsatu ohi zena baino zabalduagoa zela (hainbat testutan aztertutako adibideen laurdenak baino gehiago dute modifikatzailea izenaren eskuinean). Genitiboa, aldiz, gutxiago erabili zen hitz-ordena horrekin, eta gehienbat izenordainekin. Bestalde, euskalkien arteko aldeak nabarmenak dira: *-ko* atzizkiari dagokionez, esaterako, Iparraldean oso gutxitan aurkitzen dugu izenetik eskuin, Hegoaldean ez bezala. Azkenik, zein ordena den zaharragoa ere argitu nahi nuen. Bi aukerak lehenengo testuetatik lekukotuta daudenez, ezin gara ziur egon, baina defendatzen dudana da hiru egituretan aukerarik zaharrena modifikatzaileak izenaren aurrean jartzea zela.

Landu dudan bigarren gaia mendeko perpausak eraikitzekeko estrategiei dagokie. Alde batetik, perpaus erlatiboak aztertu ditut, izen aurreko eta izen osteko erlatiboak, aposatuak, jokatuabeak eta *zein* erlatiboak kontuan hartuta. XVI-XIX. mendeetako testuak aztertuta, ondorioztatu dut denbora-tarte horretan gertatu zen aldaketa inportanteena izan zela izen aurreko erlatiboa ez beste egituren maiztasuna txikitzea. Bestalde, *bait*-aurrizkia ere ikertu dut, bi erabilera-klase berezita: (1) aurrizkiaz gain

beste elementu bat duten perpausak (*zeren bait-* perpaus kausalak, esaterako), eta (2) *bait-* bakarrik duten perpausak, kausalak, erlatiboak edo osagarriak. Markaren erabilera aldatu egin da XVI. mendetik XX.era bitartean: zaharretan *bait-* normalean beste elementu batekin agertzen da, eta berrietan *bait-* soilik duten perpausak nagusitzen dira. Aurrizkia besterik ez duten perpausak direla-eta, gaur egun kausa edo azalpena adierazten dute gehienek. Funtzio hori ez da oso berria, XVI. mendean dagoeneko aurkitzen baitira adibideak, baina hasieran ez zen ohikoa, eta bestelako erabilerak nagusitzen ziren.

Euskararen historia aztertzeko, alboko hizkuntza indoeuroparrak lantzen dituzten ikertzaileek dutena baino datu gutxiago dugu. Hala ere, nire tesiak erakusten du sintaxi historikoa lantzeko nahiko material dugula: sintaxiaren hainbat alderdi ez dira XVI. mendeaz geroztik aldatu, baina egitura askoren forma eta erabilera ez dira berberak gaur eta duela mende batzuk.